

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

### **Zer egingo dugu guk?**

Aplikazioa lauren artean egingo dugunez, bakoitzak bere lana finkatua izan beharko du: aplikazioaren diseinua, publizitatea, erabiltzaileekin komunikatzea, diru-sarreraren eta gastuen kontrola eta dena orokorrean zuzentzea.

### **Norekin jarriko gara harremanetan?**

Gure etekinak eta baita bezeroak erakartzeko ere beste elkarteekin kontaktuan jarriko gara. Hain zuzen ere, publizitatea taberna, unibertsitate eta abarretan jarri nahi dugunez hauekin hitzarmena beharko dugu. Agian, gure iragarkiak beraien hormetan jartzearen truke diru-kantitate bat eman beharko dugu, batez ere, taberna eta komunikabideetan.

Era beran, hainbat elkarterekin hitz egingo dugu. Aipatu dugun bezala, gure erabiltzaileek elkarteek eskaitzen dituzten jardueretan %20ko deskontua izango dute, enpresa hauei komeni baitaie gure bezeroak bertara eramatea. Enpresak; Groseko surf eskola, Bilbaout room escape, Paintball Iturgutxi eta Irrisarriland dira.

Egun, hain ohikoak diren influenzerren laguntza ere beharrezkoa iruditzen zaigu. Influencer gazte eta euskaldunen artean, Twin Melody eta Iban Garcia kontaktuan jartzea erabaki dugu. Hauek publikazio bakoitza igotzeagatik 300€ ordainduko zaie.